# Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren ALDIZKARIA

## BOLETÍN del Observatorio Vasco de Economía Social

**Nº10 Zbk2010ko martxoak 31 de marzo de 2010**



### Eusko Legebiltzarrak banka etikoko entitateeekin lan egiteko deialdia egin du arriskuan dauden kolektiboei laguntzeko

Euskal Ganberak Gizarte Ekonomiaren garapenaren alde egiten duten banka etikoen iniziatibak lagundu eta bultzatuko dituela adierazi du. Talde gehienek onetsi zuten erabakia.
**Informazioa +**

### Irizar-ek 8 milioiko inbertsioa egin du Indian fabrika berria sortzeko

Ormaiztegiko enpresak ekoizpen fabrika berria ireki du Viramilalai herrian, Indiako hegoaldean, herrialdean duen urteko ekoizpen-tasa %15-teraino handitzeko asmoz.
**Informazioa +**



### Ipar Kutxak kredituak %5 gehitzea planteatu du, 13 milioiko etekin garbiari eutsiz

Entitate finantzarioak iragan martxoaren 22ko Batza Orokorrean 2010eko negozio plana aurkeztu zuen. Gainera, “zuhurtziaz positibo”-tzat hartu ziren erakundeak 2009an lortutako emaitzak, eta banka-sektorearen guztizko datuekin alderatuz “pozgarriak” direla adierazi zuten.
**Informazioa +**




### Emakumeen Giza Eskubideen aldeko Agenda Politikoa garatuko dute topaketa feminista batean

HEGOAk eta ACSUR-Las Segovias-ek diru-laguntza instituzionalarekin antolatutako ekitaldia Bilbon egingo da, maiatzean, eta genero berdintasuna kontuan duen giza garapen iraunkorraren paradigman sakontzeko lan egiten duten Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeak eta GGKEak bilduko ditu.
**Informazioa +**



### REAS Euskadi, Ipar eta Hegoaldeko ekonomia solidarioko esperientzien sistematizaziorako ekimen baten parte

Proiektu honen helburua da finantziazio, komertzializazio, kontsumo eta produkzio bezalako esparruetan izandako esperientziak aztertzea ekonomia solidarioko estrategiak indartzeko.
**Informazioa +**



### Euskal Herriko emakume ekintzaileen mugaz gaindiko topaketa

Guztira, 140 pertsona elkartu ziren martxoaren 18an Espelette-en (Iparralde) enpresari buruz emakumeen ikuspegitik hitz egiteko eta Pirinioetako alde bietan enpresa egiteko modu berriak aurkitu, proiektu komunak eraiki zein lotura sozial eta profesionalak sortzeko.
**Informazioa +**

### Erroak-Sartu Elkarteak ‘Kudeaketaren Kalitateari zilarrezko Q’-a jaso du

EUSKALIT Bikaintasunerako Euskal Fundazioak emandako sariak nabarmentzen du elkarteak esku-hartze sozialaren arloan gizarteak dituen beharrak asetzeko hartu duen konpromiso eta ardura berria.
**Informazioa +**



### Zaragozako Gizarte Ekonomiako Ikertzaileen XIII. Jardunaldietarako komunikazioen aurkezpena

Topaketa urriaren 21 eta 22an izango da. CIRIECek antolatu du Hirugarren Sektoreko Ikasketa Sozial eta Ekonomikoen Taldearen (GESES) laguntzarekin eta izenburua da ‘ La Economía Social : un modelo de desarrollo sostenible y una

alternativa para la salida a la crisis' (Gizarte Ekonomia: garapen iraunkorreko eredu bat eta krisitik ateratzeko alternatiba).
**Informazioa +**




## Eroskik 'Dirigentes 2009 Saria' jaso du Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren alorrean egiten duen lanagatik

Konpainia saritua izan da 2009an egindako lanagatik kontsumitzailearentzako informazio, hazkunde iraunkor eta solidaritatearen alorretan. Kooperatibak lau hamarraldi daramatza mozkinen %10 gizarte ekintzetara bideratzen.
**Informazioa +**

## REAS Euskadik RETOS Sarearen urteroko asanbladan parte hartu du

Erakundeko ordezkari bat izan zen bertan, Lan Ekintzako (Bilboko udala) zuzendariarekin batera. Sare honen helburua da tokian tokiko bizimoduaren ekonomia-, gizarte-, ingurumen-, eta kultura-alderdien arteko oreka mantentzen duen lurralde bat bultzatzea, bizi-kalitate hobe batera iristeko.
**Informazioa +**

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz